

Ordizian, **2009ko apirilaren 29an**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen UDAL OSOKO EZ OHIKO BILKURA, honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK

BATZORDEBURUA:

Belen Maiza Urrestarazu And.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta And.	EAJ-PNV Taldea
Jon Txurruka Etxezarreta Jn.	EAJ-PNV Taldea
Miren Auzmendi Urkiola And.	EAJ-PNV Taldea
Iban Asenjo Garde Jn.	EA Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca Jn.	PSE-EE Taldea (PSOE)
Jose J.Lopez Fernandez Jn.	PSE-EE Taldea (PSOE)
Mikel Leunda Semperena Jn.	EB-Berdeak/Aralar taldea
Maialen Galparsoro Odriozola And.	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iñigo M. Manrique Cía. Jn.	PP Taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK:

Jose Miguel Santamaria Ezeiza (Manila joateagatik falta dena)	
Mónica Marañón Basarte And.	PSE-EE Taldea (PSOE)

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

Ana Urkizu Kerejeta And.

KONTU-HARTZAILEA

Jose Luis Aranburu Otegi Jn.

INTERPRETARIA

Izaskun Zubitur Iñarra And.

INKORPORAZIOAK ETA AUSENTZIAK

- n°.2.puntuan Marañon anderea etorri da.

AZTERTUTUTAKO GAIAK

GAI-ORDENENKO AZTERGAIK:

1.- GOIEKI SAREN estatutu sozialak aldatzea.

..... 3.orr.

2.- GOIEKI SAREN memoria eta balantzea onartzea

..... 3.orr.

GORABEHERAK.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19,35

AMAIERA ORDUA: 20,00



Batzordeburuak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

1.- GOIEKI SAren estatutu sozialak aldatzea.

Proposamena

“Goierrri Ekimena SA” Elkarteko Estatutuetako 2 eta 5 artikulua aldatzeko proposamenaren berri eman da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2) artikuluan agindutakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio udalez gaindiko erakundeen partaidetzari buruzko erabakiak hartzea, eta aipatutako legezko testuko 47 artikulua arabera, Udaltzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutuz onartzea beharrezkoa da.

AKORDIO PROIEKTUA.

“Goierrriko Ekimena SA” Elkarteko Estatutuak aldatzea, honakoaren arabera:

1.- Estatutuetako 2. artikuluari paragrafo bat gehitzea, honakoa dioena: “Elkartea, soilik interes publikoko helburu soziala izanik eta akziodunen izaera kontuan izanik, irabazi asmorik gabeko elkartzat jotzen da”. Elkarteak irabaziak lortuko balitu, helburu soziala duten ekintzetara bideratuko ditu irabazi horiek, oso-osorik”.

2.- Estatutuetako 15. artikuluari paragrafo bat gehitzea, honakoa dioena:

" Ekitaldi bakoitzean lortzen diren irabaziak osorik helburu sozialak betetzeko erabiliko dira, legezko erreserba eta gainerako legezko beharretarako zenbatekoak ordaindu ondoren, eta bazkide akziodunek ezin izango dute dibidendurik banatu.

Alkate-Lehendakari jaunari Udal honen ordezkartzan aldeko botoa emateko ahalmena eman.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Osoa.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza And eta Asenjo Jn.

Abstenitu egingo direla esan dute, aldaketak elkartean izango duen eragina ezagutzea behar-beharrezkoa iruditzen zaielako.

Kontu-hartzailea

Berak ere zalantza batzuk dituela adierazi du.

Dubreuil jna.

Azaldu du elkarteak diru laguntzak lortu ahal izateko irabazi asmorik gabeko elkarte izan behar duela, eta irabazi asmorik gabeko elkarte bihurtzean, lortutako irabaziak osorik helburu soziala duten ekintzetara bideratu behar direla. Horixe da aldaketaren zergatia.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Batzordeburuak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (EA 2)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Batzordeburuak.



Segidan, Batzordeburuak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.Goiekiren 2008ko ekitaldiari dagokion kontuen balantzea eta memoria onartzea. Proposamena

GOIEKI SAK aurkeztutako kontu-ikuskaritzako txostenaren berri eman da, 2008ari dagokiona, 2009ko maiatzaren 4ean egingo den Batzorde Orokorrean aztertu eta onartzeko

AKORDIO PROIEKTUA.

GOIEKI SArri dagokion galera eta irabazien balantze eta memoria onartu.

Alkate-Batzordeburuari Udal honen ordezkarietan aldeko botoa emateko ahalmena eman.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza And eta Asenjo Jn.

Aurreko puntuan bezala, EAko ordezkariak abstenitu egingo direla esan dute, Goiekik bidalitako kontu-ikuskaritzako txostena aztertzeko denbora eta azalpen nahikorik izan ez dutela uste dutelako.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Batzordeburuak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (EA 2)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Batzordeburuak.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Batzordeburuak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

GOIEKI SAK aurkeztutako auditoretza-txostenaren berri eman da, 2008ko ekitaldiko urteko kontuei dagokiona.

Plenorako Gaien Batzordearen oniritziarekin, honako hau onartzeko proposamena egin da

AKORDIO PROIEKTUA

Berri ematen da Osoko Bilkurari Goieki SAren 2008ko ekitaldiaren Memoria, Balantzea eta Galera eta Irabaizen Kontua onartu zenekoa.

Alkate-Lehendakaria eskubideratu Udal honen ordezkartzan aldeko botoa ematerakoan.

xxxxxxxxXX

GOIEKI SA

"Goierrri Ekimena SA" Elkarteko Estatutuetako 2 eta 5 artikulua aldatzeko proposamenaren berri eman da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2) artikuluan agindutakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio udalez gaindiko erakundearen partaidetzari buruzko erabakiak hartzea, eta aipatutako legezko testuko 47 artikulua arabera, Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutuz onartzea beharrezkoa da.

AKORDIO PROIEKTUA.

"Goierrriko Ekimena SA" Elkarteko Estatutuak aldatzea, honakoaren arabera:

1.- Estatutuetako 2. artikuluari paragrafo bat gehitzea, honakoa dioena: "Elkartea, soilik interes publikoko helburu soziala izanik eta akziodunen izaera kontuan izanik, irabazi asmorik gabeko elkartzat jotzen da". Elkarrekin irabaziak lortuko balitu, helburu soziala duten ekintzetara bideratuko ditu irabazi horiek, oso-osorik".

2.- Estatutuetako 15. artikuluari paragrafo bat gehitzea, honakoa dioena:

" Ekitaldi bakoitzean lortzen diren irabaziak osorik helburu sozialak betetzeko erabiliko dira, legezko erreserba eta gainerako legezko beharretarako zenbatekoak ordaindu ondoren, eta bazkide akziodunek ezin izango dute dibidendurik banatu.

Alkate-Lehendakari jaunari Udal honen ordezkartzan aldeko botoa emateko ahalmena eman.

